251 - ENPRESA ETA EKONOMIA ALDIZKARIA | 2025 | 3-21
https://doi.org/10.1387/251eea.28286

Kirol-eragileen identifikazioa: Gipuzkoako Kirolaren Hirugarren Sektorera hurbilketa[1]

Identification of sports stakeholders: An approach to the third sector of sport in Gipuzkoa

Kimetz Garmendia Pestonit
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). Ekonomia eta Enpresa Gipuzkoako Fakultatea (EHU),
Economia Financiera I Saila, Donostia/San Sebastian, Gipuzkoa, Spain
https://orcid.org/0009-0001-3046-6632

Luken Carbayeda Urruzola*
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). Ekonomia eta Enpresa Gipuzkoako Fakultatea (EHU),
Economia Financiera I Saila, Donostia/San Sebastian, Gipuzkoa, Spain
https://orcid.org/0009-0001-0918-5836

LABURPENA: Literaturan proposatutako sektore-sailkapen nagusiak oinarri hartuta, Gipuzkoako kirola dimentsionatzeko saiakera egin da lan honetan. Hori egiteko, hiru sektoreetan banatu dugu kirola: lehen sektorea edo sektore publikoa, bigarren sektorea edo enpresa eta lanbide sektorea eta hirugarren sektorea: kirol mugimendua edo elkartegintzako sektore pribatua deitua. Azken honetan kokatzen ditu artikulu honek Gipuzkoan kirol federatua osatzen duten erakundeak. Erakunde horietan arreta berezia jarri nahi izan da, bai horien osaeran, bai dirulaguntza publikoen bidezko finantzaketa moduetan, zein lurraldean duten garrantzian. Azterlanak metodologia deskriptiboa eta esploratzailea konbinatzen du, datu kuantitatiboak eta kualitatiboak integratuz, eta iturri instituzionaletan eta datu-base publikoetan oinarritzen da, hala nola Eustat, KirolData eta GeoEuskadi, kirolaren hiru sektoreetako *stakeholder*-ak identifikatzeko eta kategorizatzeko.

Hitz gakoak: Kirola, ekonomia soziala, kirolaren hirugarren sektorea, kirol-federazioak, kirol-klubak, Gipuzkoa.

ABSTRACT: *Based on the main sectoral classifications proposed in the literature, this study attempts to define the scope of sport in Gipuzkoa. To do so, sport has been divided into three sectors: the first sector or public sector, the second sector or business and professional sector, and the third sector, also known as the sports movement or the associative private sector. This report places the organizations that make up federated sport in Gipuzkoa within the latter. Special attention is given to these organizations, focusing on their structure, the ways they are financed through public subsidies, and their importance within the region. The study combines a descriptive and exploratory methodology, integrating both quantitative and qualitative data, and is based on institutional sources and public databases such as Eustat, KirolData, and GeoEuskadi to identify and categorize stakeholders across the three sectors of sport.*

Keywords: *Sport, social economy, third sector of sport, sports federations, sports clubs, Gipuzkoa.*

Deskribatzaile alfanumerikoak Econlit: Z2 Sport economics, B55 Social economics, P48 Regional Studies.

---

[1] Ikerketa lan hau *Working Paper*-a da.

* ***Harremanetan jartzeko / Corresponding author:*** Luken Carbayeda Urruzola. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako Atala). Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) – – https://orcid.org/0009-0001-0918-5836

Nola aipatu / How to cite: Garmendia Pestonit, Kimetz; Carbayeda Urruzola, Luken (2025). «Kirol-eragileen identifikazioa: Gipuzkoako Kirolaren Hirugarren Sektorera hurbilketa»; *251 - Enpresa eta Ekonomia aldizkaria*, 1, 3-21. (https://doi.org/10.1387/251eea.28286).

© UPV/EHU Press

Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

AURKIBIDEA: 1. Sarrera. —2. Kirol-eragileen identifikaziorako proposamena. —3. EAEko testuinguru juridikoaren bilakaera. —4. Gipuzkoako kirolaren sektoreak. 4.1. Kirolaren lehen sektorea. 4.2. Kirolaren bigarren sektorea. 4.3. Kirolaren Hirugarren Sektorea. 4.3.1. Kirol-erakundeak. 4.3.2. Kirol-federazioak. 4.3.3. Kirol-klubak. —5. Ondorioak. —Erreferentziak.

1. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) kirola arautzen duen 2/2023 Lege berriak, martxoaren 30ekoa, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolarena, testuinguru juridiko berria ekarri du, aurreko 1998ko legea ordezkatuz. Egungo lege esparruak Kirolaren Europako Gutunarekin (2021) eta estatuko 39/2022 Legearekin batera, kirolaren lege-zikloaren aldaketa islatzen du, eta erronka berrietara egokitzeko premia azaleratzen du: genero-berdintasuna, gobernantza ona, zuzendaritza-organo paritarioak, jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapena eta kirol-sistemaren birdimentsionamendua eta arrazionalizazioa. Gipuzkoan kirola egiteak duen garrantzia nabarmena da. Gaur egun 46 kirol federazio daude, eta gipuzkoarren % 11 inguru federatuta daude KirolDataren datuen arabera, eta Jolas Hezi edo Multikirola bezalako programetan matrikulatutako ikasleen kopurua % 23,31 eta % 59,33 hazi da 2023tik 2024ra, hurrenez hurren.

Lan hau testuinguru horretan kokatzen da[2], eta helburu nagusitzat du Gipuzkoako kirol-eragileak identifikatzea, hiru sektoreren araberako ikuspegitik: lehen sektorea edo sektore publikoa, bigarren sektorea edo Enpresa eta lanbide sektorea eta Kirolaren Hirugarren Sektorea (KHS) federazio, klub eta elkarteek osatua. Arreta berezia eskaintzen zaio azken honi, Gipuzkoan kirol federatua egituratzen duen oinarrizko azpiegitura soziala delarik.

Ikerlan honek *stakeholder*-en ikuspegia hartzen du abiapuntu teoriko gisa (Freeman, 1984), eta sektore-sailkapen bat aplikatzen du, ekonomia sozialeko eta *sport management*-eko adituek proposatutako ereduetan oinarrituta (Lera & Lizalde, 2013; Heinemann, 2005; Europar Kontseilua, 2021). Azterketa era honetan eginez, kirol-sistemaren ulermenean sakontzea lortzen da, oro har, eta hirugarren kirol-sektoreak, bereziki, betetzen duen papera aztertzea.

Analisirako, metodologia deskribatzailea eta esploratzailea baliatu da, datu kuantitatibo eta kualitatiboak uztartuz, eta Eustat, KirolData, GeoEuskadi eta antzeko datu-base publikoak erabiliz.

Azken batean, lan honen bitartez, Gipuzkoako kirol-sistemaren egungo egoerari eta egiturari buruzko ikuspegi eguneratua eskaintzea bilatzen da, hiru sektoreetan oinarritutako azterketa baten bidez.

Artikulu hau honako eran garatzen da: lehenik, eragileak identifikatzeko proposamen teorikoa aurkezten da, *stakeholder*-en ikuspegia oinarri hartuta. Ondoren, EAEko eta estatuko lege-esparruaren bilakaera aztertzen da. Jarraian, Gipuzkoako kirolaren hiru sektoreak deskribatzen dira: lehen sektorean administrazio publikoaren rola eta finantzaketa; bigarren sektorean, kirol-industriako enpresa eta zerbitzuen garrantzia; eta hirugarren sektorean, federazio eta kluben egitura soziala eta funtzioak. Azkenik, lortutako emaitzek aukera ematen dute Gipuzkoako kirol-fenomenoaren egungo egoeraren irudi integrala eskaintzeko eta etorkizunerako erronkak identifikatzeko.

[2] Ikerketaren kokapena ez da ausaz hautatua. Aurretik egindako lanetan (Carbayeda, 2024) bi arrazoi nagusik justifikatu dute Gipuzkoa ardatz izatea: alde batetik, tokiko gobernuak dituen eskumen eta ardurek Etorkizuna Eraikiz ekimenarekin lotura estua izatea; eta bestetik, Gipuzkoa kirol-jarduerarako baldintza egokiko lurraldea izatea. (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2024)

2. KIROL-ERAGILEEN IDENTIFIKAZIORAKO PROPOSAMENA

Atal honetara iritsi aurretik, komenigarria da kirol kontzeptuaren inguruko zehaztapen terminologiko bat egitea. Izan ere, kirolaren adiera ez da bakarra, eta hainbat autorek (Barreau eta Morne, 1991; Sutula, 2018; Solar, 2022) adierazi dute definizio unibertsal bat ematea zaila dela, ikuspegi eta praktikaren aniztasunagatik. Hori dela eta, gero eta ohikoagoa da jarduera fisikoa, ariketa fisikoa eta kirola kontzeptuak bereizita aurkeztea, nahiz eta sarritan nahasian erabiltzen diren.

Gizapediaren (2024) arabera, hiru kontzeptuak honela bereizten dira: jarduera fisikoa edozein mugimendu fisiko da (adib. erosketak egitea), ariketa fisikoa planifikatua eta osasuna hobetzeko helburua duena da (adib. gimnasiora joatea), eta kirola lehia eta arauak ditu ezaugarri nagusitzat.

Kontzeptuak batasun eza sortzen badu ere, Europako Gutunak (2021, 4. or.) kirola definitzeko proposamena egiten du: «Gutun honen ondorioetarako, kirolaren esanahia da parte hartze informal edo antolatuaren bidez egoera fisikoari eta ongizate mentalari eustea edo hobetzea, harreman sozialak osatzea edo maila guztietan lehiaketan emaitzak lortzea helburu duten jarduera fisiko motak guztiak».

Gutunari eta beste zenbait autoreen (Rato eta Durán, 2010; Solar, 2022) erabakiak kontuan hartuta, lan honetan ere kirola kontzeptu zabala izango da, eta haren baitan sartuko dira jarduera fisikoa, ariketa fisikoa eta bestelako adierazpen kulturalak, mendebaldeko banaketa modernoetatik harago.

Lan honen ardatz nagusia Gipuzkoako kirol-sistemaren baitan dauden eragileen identifikazioa da. Gipuzkoako kirol-fenomenoa ulertzeko ezinbestekoa da bertan esku hartzen duten interes-taldeen sailkapena egitea. Horretarako, oinarri teorikotzat hartu da *stakeholder*-en teoria klasikoa (Freeman, 1984), zeinak erakundeak bere ingurune sozial, instituzional eta ekonomikoan dauden eragileekin harreman etengabean dauden sistematzat hartzen dituen. *Sport management*-aren ikuspegitik, teoria honek aukera ematen du kirol-sistemaren osagaiak identifikatzeko eta haien arteko harremanak ulertzeko.

Eragileen kontzeptua Freeman-ek (1984) garatutako *stakeholder* terminoaren bidez ulertzen da: erakundeen jardueretan eragin dezaketen edo eragin jasotzen duten gizabanako edo taldeak. Kirolaren kasuan, interes-talde hauen arteko elkarreragina funtsezkoa da sistemaren funtzionamendu egokirako.

Kirolaren Europako Gutunak (2021) eta akademian proposatutako lanek (Lera & Lizalde, 2013; Heinemann, 2005) eragile-sektoreen sailkapenak kirolean parte hartzen duten eragileen hiru sektore nagusien hurrengo bereizketa egiten dute:

1. **Sektore publikoa**: administrazio publikoak, tokiko zein erkidegoko mailan, kirol-politiken garapenaz eta finantzaketaz arduratzen direnak.
2. **Sektore pribatu komertziala**: kirol-industriaren eta merkatuaren logikaren barruan kokatzen diren eragileak (enpresak, gimnasioak, kirol-produktuen fabrikatzaileak…).
3. **Elkartegintza sektore pribatua**: irabazi-asmorik gabeko kirol-erakundeak eta elkarteak, hala nola federazioak, klubak eta bestelako elkarte antolatuak.

Hona hemen Lerak & Lizaldek (2013) kirolean esku hartzen duten eragileak identifikatzeko proposatutako eredua, 1. irudian:

1. irudia. Espainiar Estatuko kirolaren sektoreen bereizketa



Iturria: egileak egina eta Lera & Lizalde (2013).

Sailkapen horren oinarrian dagoen ikuspegiaren arabera, hiru sektore hauek osatzen dute kirol-sistemaren egitura: sektore publikoa (lehen sektorea), kirol-industriari dagokion bigarren sektorea, eta kirol elkartegintzan oinarritzen den hirugarren sektorea. Sektore bakoitzak egitura, logika eta helburu ezberdinen arabera funtzionatzen du, baina guztiek partekatzen dute eremu berean jardutea eta, neurri batean, administrazio publikoarekin interakzioa izatea.

Hirugarren sektorea bereziki interesgarria da, izan ere, gobernantza demokratikoa, elkartze-eskubidea eta irabazi-asmo subjektiborik eza bezalako balioetan oinarritzen baita (González, 2023). Europar Batasunak eta nazioarteko arauek erakunde horien autonomia eta demokrazia barne-printzipio gisa babesten dituzte[3]. Garrantzitsua da zehaztea, halaber, KHS oraindik ere eraikuntza-prozesuan dagoen kontzeptua dela, akademikoki oraindik esploratu gabe baitago (Chaves & Monzón, 2020).

Sailkapen horretan oinarrituta, Gipuzkoako kirolaren hiru sektoreen deskribapen eta dimentsionamendua egingo dugu hurrengo ataletan.

3. EAEKO TESTUINGURU JURIDIKOAREN BILAKAERA

Behin kirol-sistemaren eragileak identifikatuta, beharrezkoa da ulertzea zein arau-esparrutan jarduten duten, batez ere administrazio publikoarekin duten harremanean. Izan ere, *stakeholder* nagusietako batzuk (federazioak eta klubak, adibidez) administrazioaren esku-hartze instituzionala-

[3] EKren 2. artikulua; GEAUren 20. artikulua 1948; EBren 1992ko Tratatuaren 6. artikulua; EBren 2000ko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 12. artikulua; 1/2002 Lege Organikoa.

ren menpe daude hainbat funtziotan, hala nola finantzaketan, eginkizun publiko eskuordetuetan eta araudien betetzean[4].

Testuinguru juridikoaren bilakaera ikusita, legegintzan ziklo-aldaketa batean gaudela esan genezake. Estatu mailan, 2022an onartu zen 39/2022 Legea, Kirolarena, 32 urte lehenago 1990ean 10/1990 Legea, Kirolarena, onartu zelarik. EAE mailan, 25 urte bete ditu 1998an onartutako 14/1998 Legea, Euskadiko kirolarena, indarrean. 2023an, 2/2023 Lege berria onartu zen, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena. Testuinguru juridiko berriak, gainera, eraldaketa bat eragin du federazio eta kluben funtzioetan, administrazio publikoak gero eta gehiago eskatzen baitie jarduera fisikoaren sustapenean, hezkuntza- eta osasun-balioetan eta gobernantza demokratikoan inplikatzeko. Horrek erakusten du bi multzo nagusi daudela: batetik, administrazio publikoa, politika publikoen bidez kirola sustatzen duena; eta bestetik, kirol federatua eta elkartegintza, jarduera horien zati bat garatzeko ardura hartzen duena (Sánchez-Fernández *et al.*, 2023). Bi multzo hauek independenteak dira, baina elkar lotzen dira finantzaketa publikoaren eta eginkizun delegatuen bidez.

Kirolaren lege-esparruak azken hamarkadetan bilakaera esanguratsua izan du, bai estatu mailan, bai EAEn. Espainiako Konstituzioaren 43. artikuluak osasun eskubidea aitortzen du eta botere publikoek jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko duten ardura ezartzen du. Hortik aurrera, hainbat lege eta dekretuk osatu dute kirolaren arau-esparrua, gaur egungo 2/2023 Legea indarrean sartu arte.

Estatuan, Kultura Fisikoari eta Kirolari buruzko 13/1980 Lege Orokorra izan zen lehen erreferente nagusia, eta 1990ean Kirolaren 10/1990 Legeak ordezkatu zuen. Azken horrek lehen aldiz aitortu zuen kirol-federazioen izaera juridiko pribatua eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza sustatu zuen.

EAEn, 1979ko Gernikako Estatutuak kirolaren arloko eskumen esklusiboak aitortu zizkion Eusko Jaurlaritzari, eta horren ondoren 5/1988 eta 14/1998 legeek garatu zuten autonomia mailako araudia. 14/1998 Legeak finantzaketa publiko-pribatua uztartzea eta kirolaren balio sozialak bultzatzea azpimarratu zuen.

Azkenik, 2023an onartutako 2/2023 Lege berriak jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko ikuspegi integrala eskaintzen du: gobernantza ona, berdintasuna, inklusioa eta federazioen egituraren birdimentsionamendua bezalako ardatzak txertatzen ditu. Bere berrikuntza nagusien artean, organo paritarioak sustatzeko obligazioa, goi-mailako kirolarientzako osasun-laguntza sistematikoa eta gobernu organoek gardentasunaren eta parte-hartze demokratikoaren printzipioak betetzeko betebeharra daude.

Kirol-federazio eta klubek, halaber, 16/2006 Dekretuaren eta 7/1989 Dekretuaren menpeko jarduera dute, federazioen funtzionamendua eta diziplina arautzen dituzten arauak betez. Araudi horiek, Eusko Jaurlaritzak emandako beste xedapenekin batera, euskara sustatzea eta genero-berdintasunerako neurriak txertatzea ere aurreikusten dute.

Gainera, Europar Kontseiluak 2021ean berrikusitako Kirolaren Europako Gutunak (2021) interes-taldeen sailkapen berria proposatzen du, eta Europako testuinguruan ere araudia berritzen eta harmonizatzen ari da.

[4] 2/2023 Legearen 39.2 artikulua, 39.1 artikulua eta 3.2.d artikulua, hurrenez hurren.

4. GIPUZKOAKO KIROLAREN ERAGILEAK

4.1. Kirolaren lehen sektorea

Behin kirol-sistemaren eragile nagusiak identifikatuta eta haien jarduna baldintzatzen duen testuinguru juridikoa azaldu ondoren, lan honen helburu nagusiari ekingo diogu: Gipuzkoako kirol-sistemaren egungo egoerari buruzko ikuspegi eguneratua eskaintzea, hiru sektoreetan oinarritutako azterketa sakon baten bidez. Hori horrela, jarraian lehen sektorea aztertuko da, hau da, Administrazio Publikoak kirolaren fenomenoan duen papera eta rola.

Gipuzkoako kirolaren lehen sektorea administrazio publikoek osatzen dute, eta kirol-sistemaren antolaketaren oinarri instituzionala da. Erakunde hauek jarduera fisikoa eta kirola politika publikoen bidez sustatzen dituzte, osasuna, berdintasuna eta parte-hartze soziala helburu hartuta (Eusko Jaurlaritza, 2024).

EAE mailan, kirolaren ardura Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren baitan dago, eta horren menpeko da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza. Zuzendaritza honek jarduera fisikoaren sustapena, euskara eta genero-ikuspegia txertatzea, federazioekin elkarlana eta kirol-instalazioen plangintza lantzen ditu, besteak beste (Eusko Jaurlaritza, 2024). Horrez gain, funtsezkoak dira Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea, azken hau kirolgatazken azken administrazio-instanzia baita.

Lurralde historikoaren mailan, Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) eginkizun nabarmena du kirol-politiken diseinuan eta garapenean. 2024ko aurrekontuaren arabera, GFAren Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuak 18,2 milioi euro bideratu ditu «Kirolaren sustapena» programara (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2024). Programari lotutako aurrekontuaren zehaztasunak 1. taulan ikus daitezke.

Programa honen helburu estrategikoen artean daude: jarduera fisikoa sustatzea, genero-berdintasuna bermatzea, eskola-kirola garatzea, kirol-klub eta federazioen egitura indartzea eta instalazioen hobekuntza. Genero-ikuspegitik, adibidez, 869.653 euro bideratu dira emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna sustatzera, eta 450.695 euro jarduera fisikorako sarbidean ekitatea sustatzera (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2024).

Eskola-kirolari dagokionez, 1,7 milioi euroko inbertsioa egin da kirol-hastapen hezitzailea bultzatzeko, eta programa espezifikoen artean Jolashezi eta Multikirola nabarmentzen dira. Bestalde, Mugiment bezalako programen bidez, jarduera fisikoa biztanleria osoari zabaltzeko ahalegin koordinatua egiten da (Donostiako Udala, 2023).

Inklusioaren eta digitalizazioaren arloan ere pausoak ematen ari dira. GFAk lankidetza abiarazi du Gizalde edo SOS Arrazakeria bezalako elkarteekin, eta Big Kirol Data edo Emakumeok Mugimenduan bezalako proiektu berritzaileak jarri dira martxan (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2024).

1. taula. Programari lotutako helburuak, jarduketa ildoak eta kontusailak 2024ean

Urteko helburuak	Jarduketa ildoak	Ordainketa krediduak
Gipuzkoako herritar guztien artean jarduera fisikoa eta kirola sustatzea, genero-berdintasuna, ekitatea eta kirol-hastapena bereziki azpimarratuz	Gipuzkoako kirolean emakume eta gizonen arteko parekotasuna bultzatzea	869.653,36 €
	Gipuzkoan jarduera fisikorako sarbidean ekitatea sustatzea	450.694,87 €
	Gipuzkoako eskolatutako umeei kirol hastapen hezitzailea eta guztiontzat eskuragarria eskaintzea	1.712.071,65 €
Kudeaketaren kalitatea hobetzea	Aurrerabide oinarrizko ardatzen garapena	52.711,06 €
	Gipuzkoako kirolaren ezagutza handitzea, datuen kudeaketan zein beraien ustiapenean genero ikuspegia barneratuz	141.309,37 €
Kirola, Gipuzkoako identitate ikurra	Mugaz haraindiko kolaborazioko kiroletako programak	27.228,52 €
	Gipuzkoako kirola eta lurraldearen irudiaren hedapena genero berdintasunaren erronkarekiko konpromisoa indartuz	4.930.288,83 €
	Etorkizuneko kirolarien detekzio eta garapena	35.211,76 €
Kirolerako espazioen aukerak zabaldu	Gipuzkoako kirol ekipamenduen sarea sendotu eta hobetu	3.569.554,87 €
	Kirol zerbitzuko instalazioen kudeaketa	1.238.820,75 €
Kirol antolatuaren aldeko egitura indartu, genero ikuspegia barneratzeko ekintzak garatuz	Eginkizun publikoak federazioen bitartez garatu	3.225.909,74 €
	Gipuzkoako klubei laguntza eman	1.679.466,24 €
	Kirol eragileei aholkularitza eta laguntza teknikoa eman	322.817,62 €
GUZTIRA		18.255.738,64 €

Iturria: egileak egina eta Gipuzkoako aurrekontuak (2024).

GFAk kirol federazioei eta klubei ematen dizkien laguntzak bereziki garrantzitsuak dira sektore federatua sostengatzeko. Kirol-federazioek Administrazio Publikoaren aldetik jasotzen duten finantzaketa ez da homogeneoa, neurri handi batean gobernantza onarekin duten konpromisoaren mende baitago osotasun, gardentasun, berdintasun, ekitate edo inklusioaren arloan[5]. GFAk federazio bakoitzari bideratutako dirulaguntzak 2. taulan ikus daitezke.

[5] 2/2023 Legearen 43.1 eta 43.2 artikuluak.

2. taula. GFAren dirulaguntzak Gipuzkoako kirol-federazioei 2024ean

Federazioa	Emakumeen eta gizonen arteko aldea murriztea	Funtzio publikoen programak (genero berd. ekintzak barne)	Federazioa	Emakumeen eta gizonen arteko aldea murriztea	Funtzio publikoen programak (genero berd. ekintzak barne)
Airetako kirola		5.500,00 €	Herri kirolak	3.000,00 €	74.000,00 €
Arku tiraketa		8.600,00 €	Hipika		335.000,00 €
Arrantza		12.500,00 €	Hockeya	1.400,00 €	44.000,00 €
Arraunketa	13.000,00 €	93.000,00 €	Igeriketa		226.000,00 €
Atletismoa	3.000,00 €	145.000,00 €	Irristaketa		7.000,00 €
Automobilismoa		25.000,00 €	Judoa		49.000,00 €
Badmintona		20.000,00 €	Karatea		19.300,00 €
Beisbola		15.000,00 €	Kirol egokitua		175.000,00 €
Bela		40.000,00 €	Mahai tenisa		36.900,00 €
Billar		8.000,00 €	Mendizaletasuna		115.000,00 €
Boleibola		20.000,00 €	Motoziklismoa		10.000,00 €
Bola toka		20.000,00 €	Neguko kirola		44.000,00 €
Boxeoa		7.000,00 €	Padela	1.000,00 €	15.000,00 €
Ehiza		16.000,00 €	Piraguismoa	3.000,00 €	60.000,00 €
Rugbya		40.000,00 €	Saskibaloia		145.000,00 €
Esgrima		7.500,00 €	Surfa	4.800,00 €	55.000,00 €
Eskubaloia		110.000,00 €	Tenisa		15.000,00 €
Euskal pilota	31.000,00 €	225.000,00 €	Tiro olinpikoa		7.000,00 €
Futbola		400.000,00 €	Triatloia		22.000,00 €
Gimnasia		44.000,00 €	Txirrindularitza	15.000,00 €	180.000,00 €
Golf		19.000,00 €	Urpeko ekintzak		30.500,00 €
Halterofilia		25.000,00 €	Xake		55.500,00 €

Iturria: egileak egina eta Gipuzkoako aurrekontuak (2024).

Esanguratsuak dira futbolaren (400.000 €), hipikaren (335.000 €), igeriketaren (226.000 €) eta euskal pilotaren (225.000 €) zenbatekoak. Federazio guztiek ez dute berdin jasotzen, eta genero berdintasunerako konpromisoaren arabera ere aldatzen da zenbatekoa.

Era berean, kirol-klubek ere laguntza ekonomikoa jasotzen dute, ekimen, egitura eta genero-berdintasuneko programen arabera. 3. taulan ikusgai kirol klubei zuzendutako dirulaguntzak.

3. taula. GFAren dirulaguntzak Gipuzkoako kirol klubei 2024ean

Onuradunak	Mugazgaindiko kirol proiektuak	Kirol ekimenak eta jarduerak garatzeko	Klubekin harremanak indartzeko	Diru laguntza lerroak (genero berd. ekintzak barne)
Kirol klubak	5.000,00 €	5.868,62 €	32.623,12 €	1.500.000,00 €
Klubak eta ikastetxeak				206.000,00 €
Kirol klubak - Txirrindularitza				60.000,00 €
Kirol klubak - Pilota				15.000,00 €

Iturria: egileak egina eta Gipuzkoako aurrekontuak (2024).

Lehen sektoreko politikek kirolaren garapenerako oinarrizko azpiegitura eskaintzen dute. Ez da soilik diru-laguntzen banaketa kontua: politika publiko horiek ekitatean, berdintasunean eta jarduera fisikoaren gizarteratzean oinarritzen dira. GFAren ikuspegitik, kirola ez da bakarrik osasun-iturri, baizik eta identitate kolektiboaren eta kohesio sozialaren tresna ere bada.

Gipuzkoako 2024ko aurrekontuen txostenetan ez da bereizketa argirik egiten «Kirol klubak» eta «Klubak eta ikastetxeak» kategorien artean; biak batera agertzen dira dirulaguntzen banaketan. Bestalde, klub jakin batzuei zuzendutako finantzaketa zehatza jarduera espezifikoak garatzera bideratzen da: txirrindularitza-klubek jasotzen duten laguntza euskal txirrindularitzaren sustapenera dago zuzendua, eta pilota-klubek jasotzen dutena, berriz, euskal pilotaren sustapenera.

4.2. Kirolaren bigarren sektorea

Bigarren sektoreak lanbide sektorearen esparrua hartzen du barne, hau da, kirol-federazioetatik at baina jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotura estua duten erakundeak eta enpresak. Lera eta Lizalderen (2013) sailkapenaren arabera, sektore hau hiru multzotan bana daiteke: kirol-ekipamenduen fabrikatzaileak, banatzaileak eta kirol-zerbitzuetakoak. Horien artean sartzen dira gimnasioak, kiroldegi pribatuak, kirol-artikuluen merkataritzako enpresak, kirol-ekitaldi profesionalen antolatzaileak eta bestelako zerbitzu-enpresak.

2023ko datuen arabera, 4. taulan, Gipuzkoan 1.121 erakunde identifikatu dira bigarren sektoreko jardueretan, eta horrek lurraldeko enpresa-erakundeen %2,28 osatzen du. Eustaten arabera, 288 erakunde ari dira kirol eta aisialdi hezkuntzan, 182 establezimendu kirol-artikuluen txikizkako merkataritzan, eta 137 kirol-klubek jarduera profesionala garatzen dute. Era berean, 94 enpresa instalazioen kudeaketaz arduratzen dira, eta 62 gimnasio gisa sailkatu dira.

4. taula. Kirol erakundeen kopurua JEGID 2009 irizpidearekin

JEGID* 2009 kodea	Jarduera ekonomikoa	Erakunde kopurua 2023
3012	Aisialdi eta kirol-ontzien eraikuntza	—
3230	Kirol artikuluen fabrikazioa	23
4764	Kiroletarako artikuluen txikikazko merkataritza establezimendu espezializatuetan	182
7721	Aisialdi eta kirol artikuluen alokairua	16
8551	Kirol eta aisialdi hezkuntza	288
9200	Zori jokoen eta apustuen jarduerak	173
9311	Kirol instalazioen kudeaketa	94
9312	Kirol kluben jarduerak	137
9313	Gimnasioen jarduerak	62
9319	Beste kirol jarduerak	146

* JEGID: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, jarduera profesional bakoitzari esleitzen zaion eta estatistika publikoak egiteko erabiltzen den zenbakizko kodea. Gaztelaniaz: CNAE, Clasificación Nacional de Actividades Económicas.

Nota: Azterketarako erabilitako JEGID taldeek merkaturatzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak biltzen dituzte: 3012 eta 3230 taldeak manufaktura-industriakoak dira, 4764 merkataritzakoak, eta 7721, 8551, 9200 eta 931, berriz, zerbitzuetakoak[6].

Iturria: egileak egina eta Eustat[7].

SABI datu-basearen arabera, kirolaren bigarren sektoreko erakunde gehienak Erantzukizun Mugatuko Sozietateak dira, eta forma juridiko horrek sektorearen merkatu-izaera sendotzen du. Eustatek emandako A38[8] sailkapenetik abiatuta, kirolak barne hartzen dituen «Arte, aisialdi eta entretenimenduko jardueren» sektoreak Gipuzkoako BPGaren %1 inguruko ekarpena egiten du, eta lurraldeko lanpostuen %1,8 inguru hartzen ditu[9].

Eustaten datuen arabera, kirol-sektoreko enpresek berrikuntzaren arloan ere jarduera nabarmena dute. A34-A36[10] jarduera-taldeetako enpresek, kirol-jarduerak barne hartzen dituztenek, berrikuntza-jardueretan izandako inbertsioa hazkundean egon da azken urteotan.

Gipuzkoako zerbitzu-sektore nagusiekin alderatuta, kirolaren sektoreak posizio nabarmena du. 2022ko datuen arabera, kirol, aisialdi eta entretenimendu jarduerek 3.662 langile eta 585 establezimendu inguru zituzten, eta balio erantsi gordinean sektore nagusietako bat izan zen. Kirolaren bigarren sektoreaz ari garenean, merkatuan salerosketa-eragiketak egiten dituzten entitateak bildu nahi

[6] Instituto Nacional de Estadística-ren (INE) webgunean JEGID sailkapena osorik kontsulta daiteke.

[7] Euskal AEko establezimenduak, lurralde historiko, eskualde eta JESN-2009ren arabera. 2008 – 2024, hurrengo estekan eskuragarri: https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX_200163_cdirae_est03b.px/table/tableViewLayout2/

[8] Eustatek bere estatistika ekonomikoetan erabiltzen dituen sailkapen normalizatu ofizialak, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren (JEGID-2009) azpiklaseetatik abiatuta.

[9] Eustaten sailkapen honek ez ditu kirolari lotutako jarduera ekonomikoak modu isolatuan jasotzen; horregatik, jarduera ekonomiko horiek barne hartzen dituen multzo zabalago bat hartu behar dugu, eta, beraz, datu hauek Gipuzkoako ekonomiari kirolak egiten dion ekarpen erlatiboaren hurbilketa bat besterik ez dira.

[10] A34: Gizarte zerbitzuen jarduerak; A35: Jolas eta kultur jarduerak; A36: Bestelako zerbitzuak.

ditugu. Hala ere, argitu behar da hirugarren sektoreko zenbait entitatek ere, nahiz eta izaeraz elkartegintzakoak izan, produktu eta zerbitzuen merkaturatzean parte har dezaketela.

Azken urteetako joeretan oinarrituta, kirolaren bigarren sektoreak ondasun eta zerbitzuen esportazio-gaitasun handia erakutsi du, nahiz eta zerbitzu-jarduerek nazioarteko merkatuan parte hartze mugatua izan. 2. irudian, sektore honek lurraldeko kanpo-merkataritzako transakzio guztiei egiten dien ekarpen erlatiboa ikus daiteke. Manufaktura- eta merkataritza-sektoreko enpresek, aldiz, kanpo-merkataritzan pisu handiagoa dute. 2022an, esportazioen helmuga nagusiak Frantzia (%26), Alemania eta Erresuma Batua izan ziren; inportazioei dagokienez, Txinarekiko menpekotasun estruktural handia agertzen da, 2022an %49 baino gehiago osatuz.

2. irudia. Kirolaren bigarren sektorearen ekarpena Gipuzkoako kanpo-merkataritzan



Iturria: egileak egina eta DataComex.

Azken 30 urteetan, Gipuzkoako kirolaren bigarren sektoreko esportazioen pisu erlatiboa handitu egin da, eta, alderantziz, inportazioen garrantzia murriztu. Datu horiek DataComex[11] iturritik jaso dira. Nabarmentzekoa da 2020-2021 epean izandako irregulartasuna: inportazioek %67,9ko hazkundea izan zuten 2021ean, eta esportazioek %83,9koa 2020an. Fenomeno hori COVID-19aren pandemiarekin bat dator, eta eragin estatistiko nabarmena izan zuen: bigarren sektoreko merkataritzaren pisu erlatiboa handitu zen, sektore guztiek ez baitzuten hazkunde bera izan.

4.3. Kirolaren hirugarren sektorea

KHS irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek osatzen dute, eta haien funtzioa funtsezkoa da Gipuzkoako kirol-sistemaren garapenean. Ez dira sektore publikoaren parte, ezta merkatuaren logika

[11] DataComex, Espainiako eta EBko ondasunen kanpo-merkataritzaren estatistikak. Ekonomia, Merkataritza eta Enpresako Ministerioaren datu-base publiko eta ofiziala.

hutsean oinarritutako enpresak ere. Aitzitik, beren jarduera boluntariotzan eta gizarte-konpromisoan oinarritzen da, interes orokorreko helburuekin. (Chaves, 2017: Chaves & González, 2018; Chaves & Monzón, 2020).

Nagel *et al.* (2020) egileen arabera, Europako kirol-klubek zazpi funtsezko ezaugarri dituzte, haien XIX. mendeko jatorri historikoarekin lotuak:

1. Borondatezko afiliazioa: Bazkideek askatasunez erabakitzen dute noiz sartzen diren eta zenbat denboraz egon nahi duten.
2. Bazkideen interesetara egokitzea: Kluba existitzeko, bazkideen interesei erantzun behar die, eta ez da irabazi ekonomikoen bidez funtzionatzen.
3. Egitura demokratikoa: Erabakiak modu demokratikoan hartzen dira; bazkideek boto-eskubidea dute batzar orokorrean.
4. Borondatezko lana: Zerbitzu gehienak bazkideen borondatezko lanaren bidez eskaintzen dira, nahiz eta profesionalizazioaren ondorioz lan ordaindu batzuk ere badauden.
5. Autonomia: Klubek beren kudeaketa eta jarduerak autonomiaz erabakitzen dituzte, nahiz eta finantzaketa publiko osagarria jaso dezaketen politika sozial jakin batzuk betetzeko.
6. Irabazi-asmorik eza: Klubek ez dute helburu ekonomikorik; lortutako soberakinak berrinbertitu behar dira klubaren helburuetan.
7. Elkartasuna: Ohikoa da kuota finko bat ezartzea, eta horrek klubeko zerbitzu guztietarako sarbidea eta boto-eskubidea bermatzen ditu.

4.3.1. *Gipuzkoako KHS-ko kirol-erakundeak*

EAEko 2/2023 Legearen 27. artikuluaren arabera, kirol-erakundetzat hartzen dira: kirol-klubak, kirol-elkarteak, kapitaleko kirol-sozietateak, kirol-federazioak eta Euskal Kirol Federazioen Batasuna[12].

2/2023 Legearen V. kapituluan zehar garatutakoarekin bat, kirol-federazioak nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira, eta kirol-modalitate jakin bat sustatu edo praktikatzen duten kolektiboak biltzen dituzte. Eusko Jaurlaritzak aitortutako egitura ofizialaren parte dira, eta jarduera ofizialak antolatzeko ardura dute, betiere gobernantza onaren eta gardentasunaren printzipioekin bat eginez.

Federazio horiek autonomia-administrazioaren onespenarekin eratuko dira, baldintza hauek betez: jardueraren interes publikoa egiaztatzea, jarduera behar bezala ezarrita egotea, modalitate ofiziala izatea, bideragarritasun ekonomikoa eta antolaketa-gaitasuna izatea[13].

Kirol-klubak ere irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira, eta kirol-modalitate bat edo gehiago garatzea dute helburu, lehiaketa ofizialetan parte hartu edo ez. 2/2023 Legeak beren barne-funtzionamendua eta antolaketa arautzen ditu, printzipio demokratikoetan oinarrituta. Bereziki azpimarratzekoa da klub askok gizarte-ekonomiaren eta hirugarren sektorearen ezaugarri argiak dituztela: irabazi-asmorik eza, gobernantza demokratikoa eta bazkide atxikipen irekia eta borondatezkoa (González, 2023).

[12] 2/2023 Legearen 27. artikulua: «Lege honen ondorioetarako, kirol-erakundetzat hartuko dira kirol-klubak, kirol-elkarteak, kapitaleko kirol-sozietateak, kirol-federazioak eta Euskal Kirol Federazioen Batasuna».

[13] 2/2023 Legearen 37.2 artikulua.

Kirol-elkarteek nortasun juridikorik ez duten arren, federazioei atxikita jardun dezakete, eta 2/2023 Legearen xedapenen arabera arautzen dira. Kirol-klub eta elkarteek, oro har, oinarrian dagoen jarduera boluntarioa eta komunitarioa garatzen dute, eta kirol federatuaren funtsezko euskarri bihurtzen dira.

Kapitaleko kirol-sozietateek, berriz, izaera profesionaleko kirol-jarduerak garatzen dituzte, eta Estatuko araudiaren menpe daude (1251/1999 Errege Dekretua). Hala ere, 2022tik aurrera, klub bakoitzaren esku geratzen da Kirol Sozietate Anonimo gisa eratzeko aukera erabiltzea edo ez.

Azkenik, Euskal Kirol Federazioen Batasuna federazioen arteko koordinazio eta ordezkaritza eginkizuna duen erakunde nagusia da. Bere funtzioa da euskal federazioen arteko elkarlana eta egitura komun bat sustatzea, baita euskal selekzioen nazioarteko parte-hartzea bultzatzea ere[14].

4.3.2. *Kirol-federazioak*

Kirol-federazioak irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatuak dira, eta funtsezko rola jokatzen dute kirolaren ekosisteman. 2022ko 39/2022 Legea, kirolarena, jasotzen duenez, federazio horiek klubek, kirolariek, entrenatzaileek, epaileek eta kirol-modalitate jakin batekin lotutako beste kolektibo batzuek osatzen dituzte. Nahiz eta izaera pribatua izan, administrazioaren eskuordetzaz jarduten dute funtzio publikoetan, hau da, beren diziplinako kirola tutelatzen eta sustatzen dute modu esklusiboan, eta horregatik finantzaketa publikoa jasotzen dute (Sánchez-Fernández *et al.*, 2023).

Federazioen eredua egitura misto batean oinarritzen da, autonomia antolamendua eta funtzio publikoak uztartzen dituena. Cabello *et al.* (2011) egileen arabera, federazioek kirolaren sustapenean zeregin garrantzitsua izan behar dute, bai oinarrizko kirolean bai goi-mailakoan. Hala ere, egileek hainbat erronka egiturazko azpimarratzen dituzte: finantzaketa publikoaren mendekotasuna, estrategia komun falta eta kudeaketa federatiboaren modernizazio beharra. Horrek guztiak eragotzi egiten du eredu eraginkorrago eta iraunkorrago bat garatzea. 2/2023 Legearen arabera, EAEn jardun ofizialen antolaketa, lizentzien jaulkipena eta kirolaren sustapena dira euren eginkizun nagusiak.

Gipuzkoan 82.309 federazio-lizentzia daude erregistratuta, eta horien artean kirolariak, teknikariak, epaileak eta jolas-txarteldunak sartzen dira. Emakumeen parte-hartzea oraindik gizonezkoena baino txikiagoa da, baina azken urteotan zenbait federaziok ekintza zehatzak abiarazi dituzte oreka hori lortzeko.

5. taula. Gipuzkoan kirolean federatutako pertsonak 2023an

Federatuak	Emakumeak	Gizonak	Totalak
Kirolariak	17932	53234	71166
Teknikariak	719	4238	4957
Epaileak	427	1424	1851
Jolas txartelak	1121	3214	4335

Iturria: egileak egina eta KirolData.

[14] 2/2023 Legearen 53. eta 54. artikuluak.

Gipuzkoako biztanleen % 11,38 federatuta dago 2024ko urrian, eta eskola-kirolean parte hartzen dutenak gehituz gero, kirol-jardueran dihardutenen proportzioa % 26,39ra iristen da[15]. Datu horrek Gipuzkoako kirol federatuaren eragin sozial eta dimentsio demografikoa nabarmen uzten du.

Pertsona federatuak, gainera, oso modu desorekatuan banatuta daude federazioen artean. Lehiakideen % 75 inguru hamar federazio nagusitan kontzentratzen da, 3. irudian adierazten den bezala. Horrek erakusten du baliabide eta ikusgarritasunean alde handiak daudela federazioen artean.

3. irudia. Gipuzkoan federatutako pertsonen kopurua, federazioetan 2023an (%)

Iturria: egileak egina eta KirolData.

Gipuzkoako kirol federatuan generoaren araberako parte hartzea hobeto ulertzeko, funtsezkoa da kirol federazio bakoitzean gizonen eta emakumeen banaketa aztertzea. Banaketa horrek diziplina bakoitzeko partaidetza-maila ez ezik, gizarteratze-politiken bilakaera eta kirol-eremuan genero-berdintasuna sustatzeko ahaleginak ere islatzen ditu. 2. taula federazioek eta erakunde publikoek kirolean emakumeen presentzia bultzatzeko sustatutako ekimenekin lotuta egon daiteke. Antolatutako

[15] Gipuzkoako biztanleria 723.033 izanik 2024/07/01 datan, Eustaten EAEko biztanleriaren estatistikaren arabera.

kirol askok maskulinitatea nabarmentzen dute, eta kirola, oro har, gizonezkoen esparru tradizionaltzat hartu izan da (Messner, 2007).

Generoen arteko banaketari dagokionez, alde nabarmenak atzematen dira kirolaren arabera. Adibidez, gimnastikan edo hipikan emakumezkoen parte-hartzea nagusi da; aldiz, ehizan, futbolean edo txirrindularitzan gizonen presentzia ia osoa da[16]. Boleibola, eskubaloia edo saskibaloia bezalako kiroletan oreka handiagoa dago.

Genero-berdintasuneko politikek eragin positiboa izan badute ere, oraindik bide luzea dago federazio guztietan emakumeen presentzia bermatzeko, bai parte-hartzaile modura, bai zuzendaritza- eta ordezkaritza-organoetan (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2024). Gipuzkoako federazioen batez besteko parte-hartze erlatiboa emakumeen kasuan %36 ingurukoa da, eta datu hori adierazle baliotsua da berdintasunaren erronkari aurre egiteko[17].

Laburbilduz, kirol-federazioek ez dute soilik jarduera fisikoaren antolaketan funtzionatzen, baizik eta gizarte-kohesioa, berdintasuna eta garapen pertsonala sustatzeko tresna gisa ere funtsezko eginkizuna dute Gipuzkoan.

4.3.3. *Kirol-klubak*

Kirol-klubak Gipuzkoako kirol-egituraren oinarria dira, eta federazio-sistemaren funtzionamenduari eusten dioten oinarrizko eragileak. Klub hauek irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira, eta helburu dute kirol-modalitate bat edo gehiago sustatzea eta praktikatzea, lehiaketa ofizialetan parte hartu edo ez[18]. Horien jarduera boluntarioan, komunitatearekiko konpromisoan eta autogestio demokratikoan oinarritzen da, eta askok gizarte ekonomiaren ezaugarriak dituzte (Lera & Lizalde, 2013).

Gipuzkoan kirol-klub sare zabala dago, baina banaketa ez da geografikoki homogeneoa. Klub gehienak Donostialdean kontzentratzen dira, hiri-eremu handienetan kokatuta daudelarik. Klub-sarearen dentsitate desberdin horrek eragina izan lezake herritarren kirol-jarduerarako aukeretan eta jarduera federatuaren garapenean.

4. irudian ikus daitekeenez, Donostia da klub gehien dituen udalerria, eta haren atzetik, dentsitate handiko beste udalerri batzuk daude: Zarautz, Irun, Tolosa, Eibar, Azpeitia edo Arrasate. Kluben kokapena estuki lotuta dago populazio-dentsitatearekin eta eskualde bakoitzeko azpiegitura eta baliabideekin.

Banaketa horrek agerian uzten du klubek duten garrantzia tokiko kirol-sarearen antolaketan. Klub horiek dira, praktikan, federazioen egitura elikatzen duten erakundeak, eta horien bidez gauzatzen dira kirol-jarduera gehienak (Sánchez-Fernández, 2023).

Klubak funtsezko zubiak dira herritarren kirol-praktika erregularra eta federatua errazteko. Horregatik, haien banafketa, gaitasuna eta finantzaketa-aukerak erabakigarriak dira Gipuzkoako kirol-sistemaren kohesiorako eta eraginkortasunerako.

[16] KirolDatako 2023ko datuetaz abiatuta.

[17] KirolDatako 2023ko federazio bakoitzaren parte-hartze datuekin egindako batez besteko haztatua.

[18] 2/2023 Legearen 29. artikulua.

4. irudia. Gipuzkoako kirol kluben banaketa geografikoa



Iturria: GeoEuskadi.

5. ONDORIOAK

Gipuzkoako kirolean interesa duten eragileen identifikazioa izan da lan honen ardatz nagusia, *stakeholder*-en teoriaren markoan kokatuta. Hiru sektore nagusiren inguruan egituratutako azterketaren bidez: lehen sektorea (administrazio publikoa), bigarren sektorea (kirol-industriako erakunde pribatuak) eta hirugarren sektorea (federazioak, klubak eta elkarteak); Gipuzkoako kirol-sistemaren egungo egitura deskribatu da. Horretarako, metodologia deskriptibo eta esploratzailea erabili da, datu kuantitatibo eta kualitatiboak uztartuz, eta iturri instituzional eta publikoetan oinarrituta.

Azterketak agerian utzi du 2/2023 Legeak aldaketa nabarmena ekarri duela federazio eta kluben eguneroko jardunean. Lege honek ezartzen dituen balio nagusiak —genero-berdintasuna, gobernantza parte-hartzailea, gardentasuna, inklusioa eta kirol federatuaren egituren birdimentsionamendua eta arrazionalizazioa— erronka zehatz bihurtzen dira erakunde bakoitzarentzat. Bereziki, hirugarren sektoreko eragileentzat: funtzio publikoak betetzeko ardura hartzen duten heinean, araudi berriek eskakizun handiagoak dakartzate.

Lehen sektorearen kasuan, nabarmendu behar da GFAren jarduerak funtsezkoak direla kirol-sistemaren egituraketa eta garapenerako. «Kirolaren sustapena» programaren bidez, 18,2 milioi euroko aurre-

kontua banatzen da hainbat helburu estrategikotan: genero-berdintasuna, eskola-kirola, instalazioen hobekuntza eta federazioen egituraren sendotzea. Hori guztiek iradokitzen dute politika publikoek ez dutela federazio eta kluben finantzaketa modu arbitrarioan egiten, baizik eta helburu jakinen bila.

Bigarren sektoreak, berriz, kirolarekin lotutako enpresen presentzia eta ekarpen ekonomikoa biltzen ditu: enpresa-erakundeen %2,28, lanpostuen %1,8 eta BPGaren %1 baino gehiago. Sektorearen dinamismoa azpimarratzekoa da, batez ere berrikuntzaren eta esportazioaren arloetan, nahiz eta zenbait daturen sailkapen ekonomikoa ez den beti kirolari zuzenean esleitua, 4.2 puntuan azaldu den bezala.

Hirugarren sektorearen azterketak erakutsi du Gipuzkoako kirol federatuaren oinarria zabala dela: 82.309 federazio-lizentzia eta 108.565[19] eskola-kiroleko parte-hartzaile, hau da, biztanleriaren %26 inguru. Hala ere, genero-desoreka nabaria da oraindik: emakumeen parte-hartze erlatiboa %36 ingurukoa da eta federazioen artean alde handiak daude. Bestalde, federazio askoren gardentasun falta eta informazio publikoaren irisgarritasun mugatua azpimarratu dira.

Azpimarratzekoa da administrazio publikoaren eta kirol federatuaren arteko harremanak dimentsio instituzional eta estrategikoa duela. Alde batetik, federazioak eta klubak ez dira erakunde publikoak, baina funts publikoen bidez finantzatuak dira, eta administrazioek beren gain hartzen ez dituzten eginkizun batzuk delegatzen dizkiete (esaterako, jarduera fisikoaren sustapena). Ondorioz, finantzaketa horrek ez du izaera pasiboa, baizik eta administrazioaren aldetik espero den itzulkin edo eragin sozial baten aurreikuspenarekin lotuta dago. Hori dela eta, federazio eta kluben jardueren inpaktua neurtzea funtsezkoa bihurtzen da politika publikoen eraginkortasuna ebaluatzeko.

Lan honetan zehar hainbat zailtasun metodologiko atzeman dira, batez ere informazioaren irisgarritasun mugatuarekin eta datu iturri desorekatu eta ez-homogeneoekin lotuta. Kirolari lotutako jarduera ekonomikoen sailkapen zehatza ere zaila izan da, JEGID kodeetan oinarritutako hurbilketak mugatuak baitira kasu batzuetan.

Horiek horrela, etorkizuneko ikerketa-ildo nagusi batzuk hauek lirateke: 2/2023 Legearen ezarpenaren jarraipen eta ebaluazio jarraitua egitea[20]; Gipuzkoako kirol-sistema beste lurralde batzuekin alderatzea; federazio eta klubentzako gardentasun eta gobernantza tresnak garatzea; emakumeen parte-hartzea mugatzen duten egiturazko faktoreen azterketa eta horien aurkako neurriak proposatzea; eta, bereziki, kirol federatuaren jarduerek gizartean duten inpaktua aztertzea eta neurtzeko metodologia egokiak garatzea, osasun publikoaren, kohesio komunitarioaren edo inbertsioen itzulkin sozialaren ikuspegitik, besteak beste.

Azken batean, Gipuzkoako kirol-sistemaren etorkizuna ikerketa sistematikoan eta datu eguneratuetan oinarritu behar da, kirola herritarren zerbitzura jarriko duen sistema inklusibo, parte-hartzaile eta gardena eraikitzeko.

AINTZATESPENA

Lan hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz 2024-2025 lehiaketa bidezko deialdiak finantzatutako «Kirola eta ekonomia soziala: lankidetza sustatzeko gobernantza baterantz» ikerketa-proiektuaren baitan egin da, 2024ko urrian hasita.

[19] KirolData datu-basean bildutako 2023ko datuen arabera.

[20] Esate baterako, 2/2023 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian kirol-federazioen berregituraketa 2028ko hauteskunde-prozesuaren aurretik egingo dela esaten da, beraz 2028 denbora-epe interesgarria izan liteke federazioek legearen eskakizunen betetze maila ebaluatzeko.

Egileek eskerrak eman dizkiote Alberto Díaz de Junguitu irakasle titularrari artikulu honi egindako ekarpen eskuzabalagatik, gure lana hobetzera animatuz.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeari, enpresa-jarduerari eta Ekonomia Zirkularrari buruzko ikerketa-taldeari, ikerketa-proiektua hartzeagatik.

Eskerrak eman nahi zaizkio GFAri, Etorkizuna Eraikiz bezalako ekimenak sustatzeagatik.

ERREFERENTZIAK

Barreau, J.-J., & Morne, J.-J. (1991). *Epistemología y antropología del deporte*. (E. Soto Rodríguez, Itzul.) Madrid: Alianza Editorial.

Cabello, D., Rivera, E., Trigueros, C., & Pérez, I. (2011). Análisis del modelo del deporte federado español del siglo XXI. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física el Deporte, 11*(44), 690-707.

Carbayeda, L. (2024). *Kirola eta Ekonomia Soziala: Kirolaren Hirugarren Sektorera hurbilketa Gipuzkoako txirrindularitzaren ikuspegitik*. Donostia. https://www.gezki.eus/pdfs/b61891b5d2.pdf helbidetik eskuratua

Chaves, R. (2017). El tercer sector deportivo. R. Chaves, & A. Zimmer (Edk) en, *El tercer sector en España y en Europa: crisis, barreras en su desarrollo y estrategias de resiliencia en los sectores de la acción social, la cultura y el deporte*. Valencia: Publicaciones de la Universitat de València.

Chaves, R., & González, A. (2018). El tercer sector deportivo en la Comunitat Valenciana. *Libro blanco de la economía social de la Comunitat Valenciana*. en Valencia: CIRIEC-España.

Chaves, R., & Monzón, J. L. (2020). Libro Blanco de la Economía Social y del Tercer Sector en la Comunitat Valenciana. Valéncia: CIRIEC-España. https://ciriec.es/wp-content/uploads/2020/12/libro-blanco-tercer-sector.pdf helbidetik eskuratua

Europar Kontseilua. (2021). *Revised European Sports Charter*. Brusela. https://rm.coe.int/12rev3-draft-5-en-revised-european-sports-charter-2021-epas-master-278/1680a3c546 helbidetik eskuratua

Eusko Jaurlaritza. (2024). Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza. https://www.euskadi.eus/jarduera-fisikoaren-eta-kirolaren-zuzendaritza/xiii/web01-s2hhk/eu/ helbidetik eskuratua

Freeman, R. (1984). *Strategic management: A stakeholder approach*. Boston: Pitman Press.

Gipuzkoako Foru Aldundia. (2024). Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2024ko aurrekontua. https://ssl7.gipuzkoa.net/presupuestos/2023/Ppto2023/indexWeb_es.html helbidetik helbidetik eskuratua

Gizapedia. (2024). *Jarduera fisikoa eta ariketa fisikoa*. https://gizapedia.org/jarduera-fisikoa-eta-ariketa-fisikoa helbidetik eskuratua

Gizapedia. (2024). *Kirola*. https://gizapedia.org/kirola-definizioa helbidetik eskuratua

González, A. (2023). *El impacto del tamaño de los clubs deportivos en su financiación. Un análisis cuantitativo en la Comunitat Valenciana*. Universitat de València.

Heinemann, K. (2005). Sport and the welfare state in Europe This article is based on an intercultural comparative project on «Sport and Welfare Policies» including six European countries (Denmark, Germany, France, Great Britain, Italy and Spain), financed by the Club of Cologn. *European Journal of Sport Science, 5*(4), 181-188. doi:10.1080/17461390500344347

Lera, F., & Lizalde, E. (2013). *Comparative Sport Development: Systems, participation and public policy*. Espainia: Springer.

Messner, M. (2007). *Out of Play: Critical Essays on Gender and Sport*. Albany: State University of New York Press.

Nagel, S., Elmose-Østerlund, K., Ibsen, B., & Scheerder, J. (Edk). (2020). *Functions of Sports Clubs in European Societies A Cross-National Comparative Study* (13. bol.). Springer. doi:10.1007/978-3-030-48535-1

Rato, M., & Durán, J. (2010). El deporte en la cooperación para el desarrollo: una línea de investigación emergente. *International Journal of Sport Science, 6*(20), 1-2. doi:10.5232/ricyde2010.020

Sánchez-Fernández, P., Sánchez, L., & Barajas, Á. (2023). Las federaciones deportivas españolas: una evaluación multivariante de su gestión. *Cuadernos Económicos de ICE*(106), 81-99. doi:10.32796/cice.2023.106.7697

Solar, L. (2022). Definiendo «Deporte» (Poniendo puertas al campo). *Federación de Asociaciones de Gestión del Deporte de España*. https://www.fagde.org/revista-fagde-33/definiendo-deporte-poniendo-puertas-al-campo?elem=286529 helbidetik eskuratua

Sutula, V. (2018). General Definition of the Concept Sports. *J Phy Fit Treatment & Sports, 4*(4). doi:10.19080/JPFMTS.2018.04.555644